

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuak HASI GAZTE Ekonomia Soziala Gazte Saria sortu du ANEL, CEIN (Nafarroako Enpresen eta Berrikuntzaren Europako Zentroa) eta Laboral Kutxarekin lankidetzan

Sariak, Gazte ekintzaitzari laguntzeko markoan, bi kategoria biltzen ditu, 3.000 eurokoa bakoitza

Asteartea, 2018.eko urriak 2

Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuak gazteen artean ekonomia sozialeko ekimenak sustatzeko ANEL, CEIN eta Laboral Kutxaren laguntzarekin martxan jarri duen HASI GAZTE Ekonomia Soziala Gazte Saria aurkeztu du gaur. Haren izenean aritu dira Rubén Goñi jauna Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari-gerentea, Ignacio Ugalde jauna ANELeko lehendakaria, Pilar Irigoien andrea CEINeko kontseilari ordezkaria eta Javier Cortajarena jauna Laboral Kutxaren eskualdeko zuzendaria.



Irigoien, Goñi, Ugalde eta Cortajarena, auzkezpenaren ondoren

Hasi Gazte Saria gazte ekintzaileei zuzenduta dago eta bi kategoria biltzen ditu 3.000€-ko sari banarekin: batetik, Ekonomia Sozialeko Ekimen Onenari Saria, Ekonomia Sozialeko balioetan oinarrituz enpresa-proiektua egiten ari diren 31 urtez azpikoei zuzendutakoa. Eta, bestetik Ekonomia Sozialeko Enpresa Gazte Egonkortu Onenari Saria, gutxienez urtebeteko eta gehienez bost urteko antzintasuna duten eta 36 urtetik beherako langile-bazkide bat behintzat daukaten enpresei zuzendutakoa. Sariari buruzko oinarriak eta informazioa kontsulta ditzakezu hemen: <https://www.deporteyjuventudnavarra.es/es/hasi-gazte> <https://www.deporteyjuventudnavarra.es/eu/hasi-gazte>

Sari horrekin ekonomia soziala ezagutarazi eta sustatu nahi da, jardueraren ardatz gisa norbanakoa hartuta kideen interes kolektiboa edo interes orokorra (ekonomikoa, soziala) edo biak asetzea bilatzen duten, kalitatezko enpleguak bilatzen dituzten eta erabakiak hartzean berdintasun- zuzentasun- eta demokratizazio-balioak eta bertakoarekin konpromisoa sustatzen dituzten proiektu edo enpresen bitartez.

Ekonomia sozialak garrantzia gehien duen autonomia-erkidegoetako bat da Nafarroa, laneko kooperatibek eta sozietateek sektorearen % 60

baino gehiago hartzen dutela ikusita. Ekonomia sozialeko 1.064 enpresa ditugu erkidegoan, eta enpresa horiek 16.430 pertsona dituzte lanean, hots, Nafarroako sektore pribatuan lanean ari den biztanleriaren % 7 baino gehiago. Balioesten da 1.953 milioi euroko fakturazioa duela eta ekonomia sozialeko enpresetako bazkideen eta boluntarioen artean 28.000 pertsona baino gehiago direla.

Hasi Gazte Sariak ekonomia sozialaren inguruan gazteriari bultzada eman nahi dio, NBEk onartutako 2030 Agendak proposatzen dituen ekintzekin eta ekonomia sozialari “Europako ekonomian funtsezko eginkizuna” egozten dion Europako Parlamentuaren erabakiarekin bat etorriz.